

EUSKADIKO ELKARRERAGINGARRITASUN SOZIOSANITARIOA

*KONTZEPTUEN, ESTRATEGIEN ETA EGOERAREN
DESKRIBAPENA*

EUSKADIKO SOZIOSANITARIOA

ELKARRERAGINGARRITASUN

KONTZEPTUEN, ESTRATEGIEN ETA EGOERAREN DESKRIBAPENA

2025eko martxoa

Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza

Osasun Saila

Eusko Jaurlaritza

Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia

Historia soziosanitarioa - Elkarreragingarritasuna



Laburpena

Txosten honetan deskribapen kontzeptual eta estrategikoa dakargu, labor, EAEko estrategia soziosanitarioaren testuinguruan elkarreragingarritasunari heltzeko moduari buruz, alegia, EAEko administrazioen baterako lanaren emaitzari buruz.

Lan-ildoen egungo egoerari buruzko erreferentziak ere sartu dira, 2025. urtea erreferentziazat hartuta.

Elkarreragingarritasuna funtsezko elementua da Historia Soziosanitario Elektronikokoaren proiektua garatzeko.



Aurkibidea

1. Zer da elkarreragintasuna?	4
2. Elkarreragingarritasun soziosanitarioaren EAEko eredua.....	5
3. Elkarreragingarritasun soziosanitariorako azpiegitura teknologikoak.....	6
3.1. Elkarreragingarritasun funtzionalerako eta teknikorako azpiegiturak.....	6
3.2. Antolamenduko elkarreragingarritasuna sustatzeko eta ebaluatzeko sistema. ...	7
4. Elkarreragingarritasuna erabiltzeko kasuak.....	8

1. Zer da elkarreragingarritasuna?

Elkarreragingarritasuna da informazio-sistemek eta horien oinarri diren prozedurek datuak partekatzeko damaiguten gaitasuna, hartara, elkarren artean informazioa eta ezagutza trukatzeko. Beharrezkoa da, esate baterako: administrazio publikoak lankidetzan aritzeko, eta haiek zerbitzu bateratuak garatzeko, integratzeko eta emateko; askotariko politika publikoak gauzatzeko; hainbat printzipio eta eskubide egikaritzeko; teknologia transferitzeko eta aplikazioak berrerabiltzeko, efizientzia hobetze aldera; zerbitzu berriak gaitzen dituzten aplikazioen arteko lankidetzak bultzatzeko. Hain zuzen, administrazio elektronikoaren eta informazioaren gizartearen garapena errazteko aldera.

Elkarreragingarritasuna prozesu integrala dela ulertu behar da, alegia, prozesu horretan ez dago unean uneko jarduerarik edo egoeraren araberako tratamendurik egiterik, sistemaren punturik ahulenak markatzen baitu bere ahulezia.

Elkarreragingarritasun integrala honako alderdi hauei dagokie:

- Dimentsioak: elkarreragingarritasunak antolamenduaren, semantikaren eta teknikaren dimentsioak hartzen ditu. Alegia, kontua ez da sistemek beren artean «hitz egitea» soilik: ez, orotara da ziurtatzea informazioaren esanahia ulertzen dela eta erakundeek modu koordinatuan lan egiten dutela.
- Estandarrak eta independentzia teknologikoa: elkarreragingarritasunaren oinarria da sistemen arteko komunikazioa bideratzen duten estandarrak erabiltzea, inongo teknologia espezifikoren eskizari egon gabe. Horri esker, errazagoa da premia bakoitzerako konponbide onenak hautatzea, eta berrikuntza sustatzen du.
- Azpiegitura eta zerbitzu berberak: azpiegitura eta zerbitzu berberak erabiltzea (informazio-errespositorioak edo datuak trukatzeko plataformak) elkarreragingarritasuna errazten eta dinamizatzen du, eta hainbat eragileren arteko lankidetzak errazten du.
- Datua berrerabiltzea: elkarreragingarritasunak informazioa hainbat helburutarako berrerabiltzeko aukera ematen du, hala nola ikerketarako, plangintza sanitarioa burutzeko edo erabaki klinikoak hartzeko, betiere datuen segurtasuna eta pribatutasuna kolokan jarri gabe.
- Sinadura elektronikoa eta ziurtagiriak: elkarreragingarritasunaren barruan dago, halaber, sinadura elektronikoa eta ziurtagiri digitalak erabiltzea, informazioaren egiazkotasuna eta osotasuna ziurtatze aldera.
- Denbora luzean gordetzea: elkarreragingarritasunak informazioa denbora luzean gordetzen dela ziurtatu behar du, pertsonen orain eta etorkizunean arreta emateko garaian eskuragarri egon dadin.

2. Elkarreragingarritasun soziosanitarioaren EAEko eredua.

EAEko eredu soziosanitarioak helburu du arreta integratua ematea ikuspegi asistentzialetik, egitura instituzionalen, informazio-sistemen eta eskumenen autonomia errespetatuta. Arreta soziosanitarioaren planteamendua da elkarri laguntzen dioten, elkar ulertzen duten eta elkarren arteko konfiantza duten bi sistema koordinatzearen emaitza izatea.

Deskribatutako egoerari erantzuteko, EAEko eredu soziosanitarioak, informazio-sistemen arloan, ikuspegi soziosanitarioa txertatzen du, hala historia sozialean nola historia sanitarioan (eta beste informazio-sistema sektorial batzuetan, adibidez, hezkuntzan), horien arteko elkarreragingarritasunaren bidez egin ere, profesionalen baterako lan-dinamika koordinatuari laguntze aldera. Horrela, elkarreragingarritasuna zeharkako elementua da koordinazio soziosanitarioa garatzeko.

Elkarreragingarritasuna datuen trukea baino zerbait gehiago da, eta EAEko eredua dagoeneko badabil erronka horiei aurre egiten:

- Informazio-trukeak, arreta erraztu eta arreta hobetu ez ezik, **erantzukizunak dakarzkie sarbidea duten profesionali** eta, ondorioz, partekatzen den informazioak helburu asistentzial jakina eta zehatza besterik ez du, eta eskumen-irizpide jakin batzuk betetzekotan, gainera.
- Garrantzitsua da **ondo bereiztea elkarreragingarritasun soziosanitarioa, batetik, eta historia sozial eta sanitarioako sarbidea, bestetik**. Elkarreragingarritasuna sarbide horren erregulazioaren mende dago; hori dela eta, gaur egungo asistentzia-premietara egokitzen ari da, profil profesional berriak koordinatzea eta sarbidea izatea beharrezkoa da-eta orain.
- Elkarreragingarritasunaren abiapuntua da datuen segurtasunaren eta babesaren arloko legeak eta erregulazioak betetzea ezinbestekoa dela. Baina, legea betetzeaz gain, beharrezkoa da datu-trukea **ikuspegi arduratsu eta etiko** batetik definitzea eta erabiltzea; eta, horretarako, EAEko eredu honako printzipio hauek kontuan hartuta egiten da lan:
 - Onarpen informatua: jendeari bere datuak nola erabiliko diren jakinarazi behar zaio, orduan eman dezakete onarpen esplizitua informazioa trukatzeko gizarte-arloaren, osasun-arloaren eta beste arlo batzuen artean (hezkuntzarena, kasu), onarpenik ez dela behar xedatu duen araurik ez dagoen artean. Onarpen honetatik kanpo geratzen dira gizarte-larrialdiko egoerak.
 - Datuak minimizatzea: trukearen helburua betetzeko behar-beharrezkoak diren datuak bakarrik partekatzea, eta garrantzirik ez duen informazioa transferitzen ez aritzea. Pertsonen nortasuna babesteko pseudonimizazio- edo anonimizazio-teknikak erabiltzerik baden kontuan hartzea.

- Xede legitimoa:
 - Ziurtatuta dago datuen trukearen helburu nagusia pertsonen mesede egitea dela, arretaren kalitatea edo zerbitzuen eraginkortasuna hobetzearen bidez.
 - Interes publikoaren araberrako datu-trukea justifikatzea, hala nola osasun publikoaren babesa edo ikerketa zientifikoa.
- Diskriminaziorik eza: ziurtatzea datuen trukeak ez dituela talde jakin batzuk diskriminatu ditzaketen joerak iraunaraziko edo areagotuko.
- Sarbidea ekitatezkoa izatea: ziurtatu behar da datuen trukeak ez diola inongo biztanleria-talderi zerbitzu publikoetara iristeko oztoporik eragingo.

Elkarreragingarritasun arduratsuaren ikuspegi hori dela-eta, datuak zorrotz erabili behar dira, hots, datuak zertarako banatzen diren, bada horretarako erabili behar dira, ez beste ezertarako. Ikuspegi horrek erabilerakasuak hartzen ditu oinarri, koordinazio soziosanitarioa behar duten egoerak aztertzeke metodologian.

3. Elkarreragingarritasun soziosanitariorako azpiegitura teknologikoak.

Eusko Jaurlaritzak elkarreragingarritasun soziosanitariorako azpiegitura teknologikoak ematen dizkie EAEko administrazioei, honako sistema hauen bidez:

3.1. Elkarreragingarritasun funtzionalerako eta teknikorako azpiegiturak.

Elkarreragingarritasun funtzionalerako eta teknikorako azpiegiturak modulu hauez osatuta daude:

- Administrazio-modulua: modulu honetan konfigurazioak egiten dira eta alta ematen zaie sistemak behar bezala funtzionatzeko behar dituen datuei.
- Auditoretza-modulua: modulu honek sistemaren eta zerbitzuen erabilerari buruzko auditoretza-estatistikak lortzeko balio du.
- Elkarreragingarritasun-nodoa: puntu bakarreko edo puntu anitzeko bitartekotzako software elementua da, «denok denokin». Bistan jartzen ditu entitate partaideen zerbitzu propioetara egindako deiak zentralizatzeko zerbitzuak; hala, nodora deia egiten da, eta gero nodoa arduratzen da dena delako eskaera dagokion jatorrizko zerbitzura bideratzeaz.

- Kasu soziosanitarioen kudeatzailea: kasuak kudeatzeko behar den funtzionaltasunaz arduratzen da. Nodora jotzen du erabilgarri dauden zerbitzuetatik beharrezko dituenetara dei egiteko, eta kasu bat irekitzen denetik ixten den arte behar bezala aurrera egiteko funtzionaltasuna ematen du. Bere lana da informazio-trukea funtzionalki antolatzea, informazio banatuko eredu federatu batean, erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuta.

Elkarreragingarritasun-azpiegiturek bi norabidetan lotzen dituzte erakundeak, eta horri esker ezagutza seguru eta kontrolatuta trukutzen da.

3.2. Antolamenduko elkarreragingarritasuna sustatzeko eta ebaluatzeko sistema.

Elkarreragingarritasun soziosanitarioa sustatzeko informazio-sistema web-atari gisa kontzeptualizatzen da, eta honako modulu hauek dago osatuta:

- Espazio publikoa, koordinazio soziosanitarioari buruzko informazio interesgarria emateko:
 - EAEko administrazioen estrategiari lotutako informazio instituzionala.
 - Arreta integratuari eta koordinazio soziosanitarioari buruzko eduki espezializatuak (ekitaldiak, albisteak, dokumentuak eta pieza editorialak).
- Komunitate birtualen intraneta, identifikazio-sistema aitortu bidezko sarbide pribatua duena: koordinazioan laguntzeko elkarlanerako baliabideak ditu (fitxategien gordailua, agenda, mezularitza, ohola...) Gainera, edukiak zabaltzeko aukera ematen du posta zuzeneko edo *mailing* bidezko kanpainen bidez.
- Datuak aztertzeko modulua: jardun soziosanitarioa antolaketaren, funtzionaltasunaren eta teknikaren ikuspegi hirukoitzetik neurtzeko aukera ematen du, gaikako agintetaren bidez.

Gobernantza soziosanitarioko profesionalei zuzendutako sistema da, eta helburu du tresna digitalak ematea, sistemen arteko eta sistema barruko koordinazioa eta lan soziosanitario koordinatuak dakarren aldagaitasun kulturala errazago hedatzeko.

Dituen ezaugarriengatik, espazio komunitarioa profesionalen gaikuntza hobetzeko prestakuntza-prozesuak errazten dituen tresna bat da.

4. Elkarreragingarritasuna erabiltzeko kasuak.

EAEko Historia Soziosanitario Elektronikoen proiektua elkarreragingarritasuneko proiektu gisa kontzeptualizatu da, eta erabilera-kasuen metodologia darabil garatzeko. 2025ean, alde aurretik datuen trukea aztertu eta diseinatu ondoren, honako erabilera-kasu hauek ari dira gauzatzen:

Interkontsulta soziosanitarioa.

Interkontsulta soziosanitarioak balizko kasu soziosanitario bat partekatzeko aukera ematen du. Udaleko gizarte-zerbitzuetako eta osasun-zentroetako profesionalak harremanetan jartzen ditu, norbanako bakoitza identifikatzen du, kontsultarako arrazoiak adierazten du eta egoeraren deskribapen laburra txertatzen du. Gizarte- edo osasun-zerbitzuetan ekin dakioke interkontsultari, eta beste sistemaren erantzun batekin ebatziko da kontsulta kasu horretan.

Erabilera-kasu hori hedapen fasean dago lehen mailako arretan.

Arreta goiztiarraren balorazioa.

Arreta goiztiarra baloratzeko, informazioa trukatu behar da foru-aldundietako gizarte-zerbitzuen, Osakidetzaen eta Hezkuntzaen artean. Elkarreragingarritasunak aukera ematen du truke hori elektronikoa izateko, haurrarentzako arreta-plan partekatu bat ezartzeko asmoz.

Erabilera-kasua software-garapenaren fasean dago, interkonektatzen diren informazio-sistemak egokitzen.

Mendekotasunaren eta desgaitasunaren balorazioa.

Osakidetza pertsonaren osasunari buruzko informazioa emango du, foru-aldundiak kasuaren balorazioa egin eta mendekotasun- eta desgaitasun-maila zehazteko moduan izan daitezen. Erabilera-kasu honek bost urte baino gehiagoko ibilbidea du Gipuzkoan.

Gaur egun, elkarreragingarritasuneko azpiegiturretan integratzea planifikatzen ari dira, beste lurraldeei estaldura emateko, eta, balorazioari buruzko informazioa Osakidetza itzulita, zirkuitua osatzeko.

Telelaguntza.

Osasunari buruzko informazioaren premia dago, Eusko Jaurlaritzak, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailaren bitartez (Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren arduraduna), pertsonen eskaerak azter ditzan ezarritako baldintza batzuen arabera. EAEko administrazioen arteko

informazio-truke elektronikoak eskaera-prozesua errazten du, eta saihestu egiten du erabiltzaileak bere osasun-zentrora joan behar izatea txosten bat jasotzera.

Erabilera-kasu hori software-garapenaren fasean dago; lehendik dauden datuak trukatzeko baliabideak erabiltzeko aukera ematen du.

Erabilera-kasu berriak etengabe identifikatu, diseinatu eta ezartzen dira, eta hori EAEko administrazioek koordinazio soziosanitarioarekin duten konpromisoaren emaitza da, arretaren kalitatea hobetzeko asmoz beti.

